

Bilbon, 2001.eko irailaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
A. Urrutia, Jagon sailburua (arratsaldean),
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin,
Eta J.M. Satrustegi
euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 2001eko irailaren 28an bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta erdietan ekin diote lanari euskaltzainek. Ezkerreko zutabeen jasorik ageri dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute Patxi Altunak eta Miren Azkaratek.

Euskaltzainburuak, bilera hasi orduko Pello Salaburu agurtu du urte bete bilera hauetatik kanpo izan baita.

Aurreko batzar-agiria onartzea

H. Knörr jaunak azaleko zenbait zuzenketa eskatu ditu batetik. Eta bestetik, aurreko batzar-agiriari dagokion partean aipatzen den zuzenketari aipamen argiagoa egiteko eskatzen du. Zuzenketa hura EITB-ko aferari dagokiola espresuki aipatzea eskatzen du. Onartu da eta agiria ere, horrenbestez, ontzat eman da.

Ondoren, ekaineko agiria baita kontu honen guztiaren iturria, Knörr jaunak proposatutako testua agiri hartan nola txertatu eztabaidatu da. Testu hori idazkariak Knörr jaunarekin adostuko du.

Hizkuntza arauak

Hiztegi Batua: agi-ahozuri hitz zerrenda.

Ezertan hasi orduko, eztabaida mahaigaineratu da ea Miren Azkaratek orain arte egin izan dituen ponente lanak nork egingo dituen. Miren Azkarate andreak berak igorritako testua -“Hiztegi batuaz” izenburuarekin- aztertzea erabaki da. Dokumentuaren haritik, Ondarra jaunak gogorarazi du nola azkeneko agirietako batean oraingo lan egiteko erarekin hamabi urte kostako litzatekeen lana amaitzea..

Andolin Eguzkitzak erantsi du segurtasunari eman behar zaiola garrantzia. Bizkor egin ala ondo egin hautatu behar bada, bera ondo egitearen aldeko litzatekeela.

Lizundia jaunaren aburuz, eztabaidari arintasuna ematea lortu behar da, baina Euskaltzaindiaren burujabetasuna ere salbatu behar da. Eztabaidetan aukera gehiegi ematen zaie zuzenketak idatziz egin ez dituztenei.

Oihartzabalen ustez, Lizundiarekin ados egonik ere, ez zaio funtsezko arazoari heltzen. Zerrenda bakoitzean ohar asko biltzen dira. Denbora anitz behar da hainbeste oharri erantzuteko, horietan gauza asko korapilatsuak baitira. Corpora berehala osatzea eta hiztegia ere berehala egitea, bi eginkizun hauek nolabait kontrakoak dira. Prozedura funtsetik aldatu behar dugu.

Ondarraren ustez, oraingo martxan hamabi urte barik, hogeit hamar beharko dira. Eguzkitzak batzar gehiago egitea ere aukeran dagoela esan du. Charritton jaunak, berriz, euskaltzain gehiago egitea ere aipatu du.

Knörr jaunarentzat bi arazo dira: prozedura arazo bat lehenbizi, eta eragilearen arazoa bigarrena. Gauzak dauden bezala, kanpotik norbait ekarri beharra dagoela uste du. Hori egin dezakeen bakarra Mikel Zalbide bezalako bat izan liteke. Hezkuntza sailburu berriari galde lekioko eragile lanetan jar dezala egun erdiz.

Kintana jaunak proposatuko luke bilera orokorra baino lehenago batzordeñoan ohargileen arteko adostasuna bilatu eta gauzak adostuta ekartzea bilerara. Satrustegi jaunak erantzun dio eta gogorazari prozedura hau asmatu zenean ohargileen iritzia Miren Azkaratek biltzen zuela eta oso ondo. Asmoa prozedura laburtzea zela. Orain inprobisazioari leku egitea burugabekeria litzatekeela. Kintanaren proposamenari Oihartzabalek ere eman dio erantzuna: bada esperientzia. Batzordekideen arteko eztabaida gero euskaltzain guztien aurrean gertatzen zen. Orain arteko zerrendetan ehun bat ohar egin dira. Zorrozkiz eramanda ere, ehun ohar kudeatzeko pentsatu behar dugu denbora asko beharko dela edo prozedura erabat aldatu.

Patxi Goenagak bi arazoak bereizi beharra dagoela esan du: orain esku artean ditugun zerrenden eztabaidari ekin, eta gero zuzendaritzak presta dezala txosten bat prozedura argituz eta, behar izanez gero, bide berriak markatuz. Hau batzordekoekin adostua izango litzateke. Ongi iritzi diote euskaltzainek proposamenari. Jose Luis Lizundia jaunak bestalde, bere esperientzia eskaini du prozedurak eta joko erregelak finkatzeko orduan.

Satrustegi jaunak azkenik, behin eta berriro aipatu izan den laguntzailea bileran egotea behar beharrezko izango litzatekeela adierazi du.

Ondoren, Knörr jaunak *agi-ahozuri* zerrendari egindako oharrak aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

Agiantza: Eguberriko agiantzak adibidea gehitzea onartu da.

Agiritegi: "h. Artxibo" jartzea nahiago luke ohargileak. Miren Azkaratek bere oharran dio aski mailakatua dagoela jadanik zein hitzek duen lehentasuna. Oharra anbiguo gertatzen da Salabururen ustez. Jakin beharko litzateke zein den proposamena.

Xabier Kintanak beste proposamen bat egiten du: ezer ez jartzea *agiritegi*-ren sarrean.

Pello Salaburuk galde egin du ea hirugarren proposamen bat sortzen denean onartu behar den. Prozedura hau argitu beharko litzatekeela uste du. Azkenean, bozkatu da eta honako emaitza hau izan da: uztearen alde, zortzi. Azalpena kentzearen alde, lau. Zuri, bi. Beraz, dagoen bezala uztea erabaki da.

Agoizko falta omen da. Holako herritar izenak denak batera bildu behar lirateke eta azkenean denak osorik eman. Andres Iñigok *aetz*-en kasua aipatu du, ez baita age-ri Hiztegi Batuan. Nolanahi ere, ez da onartu Knörr jaunaren oharra.

Agorliho: arau orokorra marraz edo bereiz ematea da. *Agor(-)liho*-ren alde zazpi boto izan dira. *Agorliho* formaren alde lau. Zuri, bost. Beraz, *agor(-)liho* gisa ematea onartu da.

Agorrola: adiera ematea eskatzen du ohargileak. Bozkatu ondoren, definizioa behar dela diotenak lau izan dira. Horrelakorik behar ez dela, zazpi. Beraz, dagoen bezala uztea erabaki da.

Agradagarri: *Ipar*. markarekin sartzeari onartu da.

Agramondar: geroko utzi da.

Ahal: *etorriko ahal* da bezalakoak sartzeari eskatzen du ohargileak. Sartzeari onartu da. Ikus bezate teknikoek non eta nola.

Ahalagina: ohargileak berak erretiratu du oharra.

Ahalaz: adibidea gehitzearen alde bozkatu dute bederatzik. Ez eranstearen alde, lau. Beraz, Knörr jaunak proposatutako adibidea erantsiko da: *Baina horretarako bozkatu behar eta ahalaz denak elkarrekin*.

Ahalke izan: hiru erregimen sartu beharko lirateke: *zutaz*, *zure* eta *-tzera*. Hala onartu da.

Ahaztura: oharra erretiratu da. *Ahaztura*-ra iristean aipatuko da berriro.

Ahoeri: adiera ematea eskatzen da. Ematearen alde, bost boto. Ez ematearen alde, zortzi.

Ahopaldi: hitz hau sartzeko proposamena ohargileak berak erretiratu egin du.

Ahozuri: libre denez forma horretan nahiz marrarekin ematea, ohar gisa, “(ahozuri ere idatz daiteke)” ezarriko da.

Ondoren Kintana jaunaren oharrak hartu dira aztergai:

Aginterri: ‘estatua’ adiera ere eranstea onartu da.

Agitazio: ez sartzearen alde, bederatzik. Sartzearen alde, bi. Hiru abstentzio. Beraz, ez da onartu.

Agoilatu: adiera gehitzea onartu da: ‘upelaren edukia urritu ahala, osatzea’

Agresibitate/agresibotasun!.....: ohargileak berak erretiratu du oharra.

Aguakate: *ahuakate* proposatzen du Kintanak. Onartu da: alde, bederatzik; kontra, inor ez, zuri, lau.

Agurtza: Ohargileak “e. arrosario” proposatzen du. Miren Azkarateren proposamena onartu da, hala ere, hots: “h. Arrosario”.

Agurtzaile: Ohargileak “g. er.” Oharra kentzearen alde agertu da. Ohar hori uztearen alde agertu dira sei euskaltzain. Kentzearen alde beste sei. Zuri, bat. Dagoenean uztea erabaki da, horrenbestez.

Ahaldungai: adiera kentzea onartu da.

Ahalkor: sinonimo gisa *lotsakor* eta *lotsor* ematea onartu da.

Ahalorodun: dagoen bezala utzi da.

Ahantzura: g. er. oharra kentzea onartu da.

Ahatetxo: hitz txikigarri hau haur hizkuntzan egokia ikusten du ohargileak eta sartzeko eskatzen. Baina txikigarriak ez dira hiztegian sartzen. Hamar sartzearen kontra; bat alde eta hiru zuri. Ez da onartu, beraz, sartzea.

Aheria: ohargileak erretiratu du oharra. *Aheri(a)* 2 g. e ‘kantua’ delako sarrera kentzea onartu da, bestalde.

Aho: adierak ematea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu. Kontra bozkatu dute zazpi euskaltzainek. Kintanaren alde, berriz, seik. Eta zuri, hiruk.

Aholku batzorde: adibide gisa, honako hau ematea onartu da: *Euskararen Aholku Batzordea*.

Ahotz: dagoen bezala uztea erabaki da, adieretan sartu gabe.

Ahotzilari: ez sartzea onartu da.

Ahozabalka eta *aho zabalka*, biak ematea onartu da.

Aho-zero: sartzearen alde, 2. Ez sartzearen alde: 6. Zuri: 7. Ez da sartuko.

EEBS-ren aurkezpena.

Ordu bata eta erdietan hiztegi kontuak utzi eta UZEI-ko Miren Urkia eta Alberto Agirreazaldegiri eman zaie hitza sarean jarri berri den EEBS (*Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa*) izeneko corpusaren aurkezpena egiteko. Azalpenen ondoren, euskaltzainek beren galderak egin dituzte eta argitasunak jaso. Oso tresna boteretsua dela ikusi da eta lagungarri izango da hiztegi eta gramatika kontuak aztertzeko. Jendaurreko aurkezpen batean eta bakarka aritzean gauzak modu desberdinez ikusten direnez, gonbita egin zaie euskaltzain guztiei nork bere kasa saioak egin eta bilaketak burutu ditzan, eta, hutsik nabarituz gero, oharrak egin ditzala.

Ondoren, ordu bietan, eten egin da bilera bazkaltzera joateko.

Arratsaldean lauetan eman zaio atzera hasiera bilkurari.

2002ko aurrekontuak onartzea

Zearreta jaunari eman zaio hitza datorren urteko aurrekontuen berri eman dezan. Aurreko bileran aurkeztutako dokumentuari zenbait aldaketa egin zaizkiola azaldu du: batetik, prentsa arduradunari lan dedikazioa handitzea erabaki denez (%50etik %60ra), horrek duen eragina jaso da aurrekontuetan. Bestalde, Onomastika batzordeari dagoz-kionak aipatu ditu: batzordearen ohiko eginkizunetan bada uztailean kontuan hartu ez

zen puntu bat. *Deitura izendegiak* eguneratze lan bat eskatzen du eta horretarako diru kopuru bat ezarri da (2.000.000 pta.). Bestetik, toponimia egitasmo berezi gisa testu liburuetan agertzen diren exonimoen azterketa lana sartu da. Jagon saileko sustapen lanei esleitutako kopuru bera beste modu batera banatu da.

Aurrekontu bereziak aparte ezarriko dira. Diru-iturriak ere bereziak izango dituzte eta aparte kudeatuko dira, gainera.

Azkenik, ekonomi eragileak aurtengo kontualdia oso berezia izan dela aitortu du: urteko dirulaguntzak oso berandu etorri dira; Herri aginteekiko hitzarmenaren urteko protokoloarekin ere arazoak, Nafarroako katramilaren eraginez. Ondorioz, ordainketak nola hala ibili dira, baina laster bideratuko direla esan du.

Proposatu diren zuzenketak onartu dira eta, horrenbestez, baita aurrekontuak ere.

Ostera ere hiztegira itzuliz, Urrutia jaunaren oharra hartu dira hurrena aztergai.

Agidanez: *agi denez* e. agidanez* jartzea onartu da, *agi zenez** ageri den bezala. Berak hasiko luke zerrenda. *Agi zenez* hau lekuz aldatu behar da. .

Agindei: ohargileak berak erretiratu du.

Agindu: *agindura egon* eta antzekoak sartzeari eskatzen du Urrutiak.

Salaburu jaunari, ohar hauek Miren Azkarateren iruzkinik ez dutenez, ez zaio bidezko iruditzen bat-batean egitea eztabaida. Prozedurazko kontu hau onartu da eta oharra dituztenen azterketara sartzeari erabaki da. Goenagaren oharra aztertu dira ondoren:

Ahal: *ahal adina, ahal bezain* eta antzekoak kentzeko proposamena ohargileak berak erretiratu egin du.

Ahalik eta azpisarrera gisa sartzeari onartu da.

Ahari-ren azpisarrei dagokien oharra ere erretiratu egin du Goenagak.

Satrustegi jaunaren oharra:

Ago: Beñat Oihartzabalek horrelakoak sartzekotan denak sistematikoki ikusi beharko lirakeela dio. Atlasean horrelako galderak egin dira. Eztabaida luzea ekarri du hitz honek. Azkenean, sartu ala ez bozkatu da: sartzeari alde, 10. Kontra, 1. Zuri, 4. Ondoren, h-rekin ala h-rik gabe behar ote duen ere bozkatu da. h-rik gabe, hamar; h-rekin, lau; zuri bi. Beraz, honela sartuko da: "*ago* Interj. aberekin erabiltzen den agindu hitza".

Agot: *agote* forma nahiago luke ohargileak. Zerrendak dakarren *agot* uztea erabaki da.

Onomastika batzordearen proposamenak hartu dira ondoren azterkizun.

Afro hitza aurreko zerrendakoa da eta Azkaratek galdetzen zuen ea zer egin behar zen elementu honekin. Sartzeari onartu da: hitz elkarketako lehen osagai gisa erabiltzen da beti.

Agramondar/agramontes eta abarren auzia hartu da ondoren gaitzat. Eztabaida luzearen ondoren, *agaramontar / beaumontar* formak onetsi dira.

Eskuartekoak

HABE-ren zuzendaritza batzorderako ordezkaria izendatzea.

HABE-ren zuzendaritza batzorderako ordezkaria izendatzeko eskatu zaio Euskaltzaindiari Miren Azkarateren ordez. Zuzendaritzak Andres Urrutiaren izena proposatu du eta hala onartu da.

Lodosako bilkurak finkatzea

Jose Luis Lizundiak, Lodosan, *Nafarroa Oinez*-en inguruan egingo den hurrengo hileko bilkurari dagozkion xehetasunak eman ditu lehendabizi.

Bestalde, Urrutia jaunak egun horretarako antolatu diren V. Jagon Jardunaldien berri eman du, zein hizlari, gaiak, etab.

Xabier Kintanak Gregorio Monreal bezalako pertsonak gonbidatzea eskatu du. Entzule gisa gonbidatzeko arazorik ez dela erantzun dio Jagon sailburuak eta hala egingo dela.

Azken ordukoak

Charritton jaunak azaldu du bilera-deia egin diotela Euskal Kultur Erakundetik. Euskaltzaindiaren babesarekin egin izan omen dira hainbat itzulpen, baina gero eta lan gehiago sortzen delarik, itzulpen zerbitzu bat eratzeko ordua iritsi dela pentsatzen hasiak dira zenbait. Baina Charritton jaunak ez daki zer esan dezakeen Euskaltzaindiaren ordezkari gisa. Euskaltzaindiak bestek egindako lanei oniritzia eman behar bazaie, zer egin behar da?. Euskaltzainburuak dio Pirinio Atlantikoko agintariek begiraletza ofizial hori eman diotela Euskaltzaindiari. Ados da eskatzen den itzulpen zerbitzu horretaz.

Pello Salabururen iritziz, entzutera joan beharko litzateke, eta, hori bai, Euskaltzaindia eta beste zenbait gonbidatu parean ez daudela argi utzi behar litzateke Euskal Kultur Erakundekoei. Bestalde, itzulpen kontuetan bada tradizio bat eta hor bilatu beharko litzateke laguntza.

Charritton eta Haritschelhar, biok, joango dira entzule gisa eta ikusiko dute zer egin. Haritschelhar jauna ados da talde profesional bat sortzeaz.

Azkenik, Xabier Kintanak Euskaltzaindiak ospatu berri duen XV. Biltzarraren balorazioa egitea eskatzen du. Prentsan agertu denaz gogoeta egin beharko litzatekeela dio. Gogoeta horretarako parada izango dela erantzun dio euskaltzainburuak.

Eta seiak eta bostean amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga